

Foru Aldundiaren 2022rako aurrekontua onetsi da, zeinak milioi bat euro inguruko zuzenketak jasotzen baititu

Aldundiaren kontuak, historiako altuenak, 574,4 milioi eurokoak dira, eta % 8,9ko igoera izan dute 2021eko aldean

Gasteiz, 2021eko abenduaren 23a. Arabako Foru Aldundiak badauka, dagoeneko, datorren urterako aurrekontua: Arabako Batzar Nagusietan gaur goizean egindako osoko bilkurak oniritzia eman die foru kontuei, zeinetan oposizioa osatzen duten hiru alderdi politikoen zuzenketak jaso baitira, 947.000 eurokoak. Zehazki, hiru EH Bildurenak dira, beste hiru Arabako Popularrak eta bederatzi Elkarrekin Arabarenak.

Zenbatekoari dagokionez, nabarmentzekoak dira esku hartze sozialaren sektoreko hitzarmenera bideratutako zenbatekoaren 300.000 euroko igoera (750.000 euro, guztira), eta energia eraginkortasunerako laguntzei gehitu zaizkien 150.000 euroak (guztira 270.000 euroko kopurura iristea ahalbidetzen du horrek). Era berean, 200.000 euro sartu dira merkataritzan eta ostalaritzan TicketBai ezartzeko laguntzetarako.

Zenbatekoa handitu duten beste partida batzuk dira emakumeen kirolari laguntzekoak, eskola kirolari laguntzekoak edo kirol egokituko elkarteei laguntzekoak. Halaber, esnearen sektoreari laguntzeko plan bat sortzea aurreikusi da, eta 40.000 euroko zenbatekoa izango da horretarako.

2022rako aldundiaren aurrekontuak historiako altuenak dira (574 milioi euro), ekitaldi honetan baino % 8,9 handiagoak, lurraldea digitalizazioaren, deskarbonizazioaren eta zaintza politiken ikuspegitik eraldatzea bultzatzeko.

Zehazki, aukera emango dute gizarte politiketan berritzeko, proiektu estrategikoak abian jartzeko, trantsizio energetikoari ekiteko eta ekonomia eta enplegua sustatzeko.